

KANALAK

Gure instagram kontua erabiliko dugu jendea erakartzeko eta haiei ezagutzera emoteko gure arropak, eskuragarri izango dutela gure web orrialdean.

Interneten web orri bat zabalduko dugu eta bertan bezeroak gure esku ditugun arropa guztia ikusi ahalko dute. Bertan, gustuko duten arropa aukeratu beharko dute eta nahi duten moduan pertsonalizatu ahal izango dute. Pertsonalizatzen bukatzean ordainketa egin beharko dute eta datuak eskatu beharko diegu: mugikor zenbakia, arazoren bat baldin badago elkar kontaktuan jarri ahal izateko, helbidea....Guri notifikazio bat iritsiko zaigu zein arropa erosi nahi duen eta nola pertsonalizatu nahi duen. Notifikazio horretan bezeroak idatzitako helbidea eta mugikorra agertuko zaigu eta 2 egunetan haien etxean izango dute haien arropa berria.

Laburbilduz, kanal propio bat izango da online motakoa. Gaur egun, teknologia oso garatuta dago eta pertsona gehienok ibiltzen dira egunero mugikor edo haien ordenagailuekin internet-a erabiliz. Bestalde, egia da badaudela nagusi batzuk ez dutela ordenagailuan ibiltzeko gaitasunik. Beraz, internetekin ibiltzeko arazoak dituztenek, gure telefono zenbakia eskuragarri izango dute eta gurekin harremanetan jartzean, guk hurbilduko ginateke haiengana eta haiekin hitz egingo genuke.

Pertsonen arropak pertsonalizatuta daudenean hasieran lantegi txiki bat garenez eta, Durangaldean famatua izango denez, guk bizikletaz, tren hartuz edo autobusean joango ginateke kostu handirik ez izateko. Baina lantegi handiagoa eta ospetsuagoa bihurtzean eta Espainia osoko bezeroak izango ditugunean, korreo bidez helduaraziko litzaiokeen gure bezeroei. Ondoren, beste herrialdeko bezeroen eskariak izaten baldin badugu, DHL-ren bitartez helduaraziko geniokeen gure bezeroei.

